



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko irailaren 20a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkeztu dute (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Nafarroako herrietako bizikidetasunari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Toki Administrazioan administrazio elektronikoa bultzatzen laguntzeko neurriei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Interpelazioa, klimaren aldeko nazioarteko greba deitu duten erakundeen helburuak direla-eta garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Interpelazioa, migrazioen arloko politika orokorrari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen baitu Francisco José Unsáin Collantesen heriotza, zeina Kasedan izandako lan-istripuan hil baitzen. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten baitie tanta hotzak kaltetutako pertsonei eta herriei. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Europako Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alacanteko Plataforma Feministak bultzatutako mobilizazioarekin, emakumeen aurkako indarkeria dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen polizia-gehiegikeriei buruz Nafarroak eta EAEk onetsitako legeen aurka PPK, Cs-ek eta Voxek aurkeztutako errekursoak Konstituzio Auzitegiak izapidetzeko onartu izanari buruz. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, eremu ez euskalduneko familiek beren seme-alabak D ereduan matrikulatzeko eskubidea bermatzeko irizpideei eta urratsei buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuan karguak dituzten laur alderdi politikok bitarteko eta baliabide publikoak erabiliz egindako publizitate-bideoari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, gastu-muga aurkezteko aurreikuspenari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, inbertsio-plan berriari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, udal eta kontzeju bakoitzak izan beharreko oinarrizko azpiegituren paketeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, transferentzia arrunten funtsari buruzko lege berriari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, foru legeak direla-eta Gobernu zentralak planteatutako eskumen-gatazkei dagokienez Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (15. or.).
- Galdera, autonomia erkidegoetako osasun-zerbitzuak direla-eta Osasungintza Publikoaren Defentsarako Elkartearen Federazioak abuztuan egindako txostenaren balorazioari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea zer balorazio egiten den ikasturtearen hasieran Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezarri izanari buruz. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (16. or.).
- Galdera, banku publiko bat sortzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateak bortuz bestaldeko Nafarroarekin eta hango erakundeekin daukan harreman ekonomiko, sozial eta kulturelei eta hartu beharreko neurri zehatzei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den trafiko arloko eskumenak eskualdatzeko prozesua. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, eremu ez euskalduneko ikastetxeetan D ereduan ikasten duten ikasleei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, lan-kontratudunei gradua ordaintzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Zolinaran paratu nahi den planta fotovoltaiakoari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Toki Ogasunen Funtsari atxikitako diruzaintzako gerakinari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, ADIPNA eta Erriberako Zuzendariak elkarteekin Hezkuntzako kontseilariak abuztuaren amaieran izandako bilerari buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (20. or.).
- Galdera, landa eremuko eskola sustatzeari buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (21. or.).
- Galdera, A erdua biziberritze aldera ADIPNA eta Erriberako Zuzendariak elkarteek egindako errekerimenduari buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak sinatu eta indarraldia bukatu zaien eta “aberaste bidegabearen” egoeran dauden kontratu edo hitzarmenei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (22. or.).
- Galdera, Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Aginduari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, ikasturtearen hasieran Nafarroako ikastetxeetan behar adina irakasle egonen dela lortzeko hartuko diren neurriei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren osatu duten alderdi politikoen mezuak defendatzeko Nafarroako Gobernuaren Twitter-eko kontu ofizialean erantsi den bideoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, bost hilabete eta erditik gorako kontratuak dauzkaten bitarteko langileei udako hilabeteak ordaintzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (24. or.).

—Galdera, Nafarroako ekonomia bereziki ukitzen duten adierazle ekonomiko baliagarriei buruzko informazio-gailu berriak ezartzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (25. or.).

—Galdera, N121A errepideko Sunbillako bidegurutzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (26. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar duen kidea hautatzea (27. or.).

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesan, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkeztu dute Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamena (10-19/PRC-00003).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 212. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamena izapidera onartzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikulua 2. apartatuak hauteskunde-gastuaren muga arautzen du, halako moduan non muga hori izanen baita “alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bakoitzak bere zerrendak aurkezten dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik ateratzen dena”.

Jarraian, 2. apartatu horretan arautzen da probintzia-osagarria, barruti bakar batean aurkezten diren formazio politiko txikiak balia ezin dezaketena. Muga horren aplikaziotik ateratzen diren zenbatekoak ez dira inondik ere aski hauteskunde-kanpaina bat egiteko –Kontuen Auzitegiak berak 2015eko Tokik Hauteskundearen Kontabilitatearen Fiskalizazio-txostenean adierazi duen legez–; halatan, zenbateko horiek, batzuetan, txikiagoak izan ohi dira kasuan kasuko toki korporazioan ordezkaritza lortuz gero formazio politikoek hauteskunde-gastuengatik lor litzaketan dirulaguntzak baino. Horri gehitu behar zaizkio gehiegizko hauteskunde-gastuak izan ditzakeen ondorioak; izan ere, arau-hauste zehagarri gisa tipifikaturik ageri da Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan.

Horren egungo testuan, % 10 baino gehiagoko gaindikinak gutxienez ere 50.000 euroko zehapena ekar dezake. Egungo araubideak dakarren egoera zuzentzeko, beharrezkoa izanen litzateke bermatzea hauteskunde-gastuaren mugak ahalbidetu egiten duela gutxieneko hauteskunde-kanpaina bat egitea edo, gutxienez ere, hauteskunde-

etako gutun-azalak eta propaganda zuzenean bidali ahal izatea, eta lotura duela jasoko diren hauteskunde-dirulaguntzen zenbatekoarekin.

Bestalde, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. artikulua bigarren, hirugarren eta laugarren –b letran– apartatueta arau-hauste oso larri, larri eta arin gisa tipifikatzen dira, hurrenez hurren, alderdi politikoen Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan ezarrita dauden hauteskunde-gastuen mugak gainditzea, gainditutako ehunekoaren arabera. 17. bis artikulua, berriz, arau-hauste horiei dagozkien zehapenak ezartzen ditu, halako moduan non kasu guztietan gutxieneko zehapen bat ezartzen baita, 50.000, 25.000 edo 5.000 eurokoa, gaindikina arau-hauste oso larria, larria edo arina izatearen arabera, nahiz eta hauteskunde-gastuaren muga gainditzeari buruz hasiera batez ezartzen den zehapena izan hauteskunde-gastuaren mugaren gaindikinarekin halako bitik halako bostera bitartekoa.

Kontuen Auzitegiak izapidetutako zehapen-prozedurekin azkenaldi honetan izandako esperientziak agerian uzten du ezen, herri bakar batean lehiatzen diren formazio politiko txikien kasuan, gaindikin oso txiki batek 50.000 euroko zehapen neurrigabea ekar dezakeela, aplikatzekoa zaien hauteskunde-gasturako mugaren ondorioz.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da aldatzea bai Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikulua bai Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua, azken horren kasuan kenduz ezarri beharreko gutxieneko zehapena.

Ekidite aldera hauteskunde-gastuaren mugari buruzko egungo araudiaren ondorioz apirilaren 1eko 209/2019 Errege Dekretuaren bidez deitutako udal hauteskundeetan hautagaitza barruti bakarrean aurkeztuz parte hartu duten alderdi politiko txikiei zehapen-espeditente berriak ireki eta zehapen neurrigabeak ezar dakizkien, proposatzen da aldi baterako xedapen bat sartzea, halako moduan non lege honetan ezarritako aldaketak aplikatzen ahal izanen baitzaizkie alderdi politiko horiei.

1. artikulua.

Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikuluko 2. apartatuaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

«2. Udal-hauteskundeetan, hauteskunde-gastuen muga izanen da alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bakoitzak bere hautagaitzak aurkeztu dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagoen biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik ateratzen dena.

Barruti bakar batean aurkeztu diren alderdien edo hauteskunde-elkarteen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako hauteskunde-gastuen muga ezin izanen da 2.500 euro baino gutxiagokoa izan. Baldin eta alderdi edo elkarte horiek Estatuaren diru-laguntzak jasotzeko exigitutako baldintzetara iristen badira, hauteskunde-gastuaren muga ezin izanen da izan diruz lagundu daitekeen zenbatekoa baino txikiagoa. Probintzia bakoitzeko, hauteskundeetan gutxienez ere biztanle eskubidudunen 100eko 50ean aurkeztu direnek beste 150.301,11 euro gastatzen ahal izanen dituzte baldintza hori betetzen duten probintzietako bakoitzeko».

2. artikulua.

1. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua lehen apartatuaren azken paragrafoaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“a) apartatuan aurreikusitako zehapenak ez dira inolaz ere izanen berrogeita hamar mila euro baino gutxiagokoak”.

2. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua bigarren apartatuaren b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“b) 17. artikulua bigarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, egindako gastu-gaindikinarekin halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena”.

3. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua hirugarren apartatuaren b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

“b) Hirugarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-haustearen kasuan, egindako gastu-gaindikinarekin halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena”.

Xedapen iragankor bakarra.

Lege honetan jasotzen diren aldaketak aplikatuko zaizkie apirilaren 1eko 209/2019 Errege Dekretuaren bidez deitutako udal hauteskundeetan hautagaitza barruti bakarrean aurkeztuz parte hartu duten alderdi politikoei.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako herrietako bizikidetasunari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako herrietako bizikidetasunari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioko parlamentari Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako herrietako bizikidetasunari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten du.

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Interpelazioa, Nafarroako Toki Administrazioan administrazio elektronikoa bultzatzen laguntzeko neurriei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Toki Administrazioan administrazio elektronikoa bultzatzen laguntzeko neurriei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita legeak ezartzen dituen epeak, eta sistema arrazionalizatzeko dauden ekimen ezberdinak koordinatu beharraz jabetuta, jakin nahi dut ea zer neurri hartuko dituen Lurralde Kohesiorako Departamentuak Nafarroako Toki Administrazioan administrazio elektronikoa bultzatzen laguntzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Interpelazioa, klimaren aldeko nazioarteko greba deitu duten erakundeen helburuak direla-eta garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkezturiko interpelazioa, klimaren aldeko nazioarteko greba deitu duten erakundeen helburuak direla-eta garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Interpelazioa, Klimaren aldeko Nazioarteko Eguna dela-eta irailaren 27an greba deitu duten erakundeen helburuei dagokienez Nafarroako Gobernuak garatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Interpelazioa, migrazioen arloko politika orokorrari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko interpelazioa, migrazioen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, migrazioen arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen baitu Francisco José Unsáin Collantesen heriotza, zeina Kasedan izandako lan-istripuan hil baitzen.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen du Francisco José Unsáin Collantes Zarrakasteluko bizilagunaren heriotza, zeina Kasedan izandako lan-istripuan hil baitzen, eta bere babes eta elkartasuna adierazten dizkie haren familiari eta lagunei, bai eta laneko istripuren bat pairatu duten pertsona guztiei ere.

2. Nafarroako Parlamentuak orobat adierazi nahi die bere babesa eta elkartasuna Wenceslao Pérez Remón Oibarko bizilagunari, zeina istripu horretan zauritu baitzen hildakoari laguntzen saiatu zenean, eta laster sedatzea opa dio.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela eragile guztiak lankidetzan aritzea laneko istripuak ekiditeko prebentzioan. Halaber, enpresei exigitzen die onar dezaten beren ardura dela arau indardunak betearaztea eta prestakuntza eta informazio egokia ematea.

4. Nafarroako Parlamentuak minutu bateko isilunea gordeko du hurrengo Osoko Bilkura arruntaren hasieran, laneko istripu baten biktima berri honen gomutan” (10-19/DEC-00050).

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten baitie tanta hotzak kaltetutako pertsoneri eta herriei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten die iragan ostegunetik hona Valentziako eta Murtziako autonomia erkidegoak bereziki kaltetzen ari den tanta hotzaren ondorioz penintsularen hego-ekialdean gertatzen ari diren uholdeek kaltetutako pertsoneri eta herriei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere estimua eta elkartasuna adierazi nahi die fenomeno horrek

eragindako hildakoen familiei, zauritutako pertsona guztiei eta gertatu diren kalte material itzelek ukitutako guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak erakunde eta entitate eskudunei eskatzen die ondare publikoetan gertatu diren kalteak azkar konpon ditzaten, ingurua lehenbailehen normaltasunera itzul dadin” (10-19/DEC-00051).

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Europako Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak 2019ko irailaren 9an egindako bilkura arruntean erabaki zuen Alzheimerra eta bestelako dementziak dauzkaten pertsonen senitartekoen Nafarroako Elkartarekin bat egitea, Alzheimerren Nazioarteko Eguna “Alzheimer #EVOLUCIÓN” goibururekin ospatzeko” (10-19/DEC-00052).

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alacanteko Plataforma Feministak bultzatutako mobilizazioarekin, emakumeen aurkako indarkeria dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Alacanteko Plataforma Feministak bultzatutako mobilizazioarekin, emakumeen aurkako indarkeria “larrialdi-egoerakoa” izatera heldu dela iritzita, eta dei egiten du gure erkidegoan irailaren 20an horren karietara deitzen diren ekitaldietan parte hartzera.

– Nafarroako Parlamentuak bere egiten du “20S Emergencia Feminista” manifestuarekin, eta adierazten du emakumeen eta beren seme-alaben erailketen aurka sendo jardun beharra dagoela, bai eta sexu-indarkeriaren aurka ere, behin eta berriro zabaltzen baitu izua lurralde osoko emakumeen bizitzan” (10-19/DEC-00053).

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen polizia-gehiegikeriei buruz Nafarroak eta EAEk onetsitako legeen aurka PPK, Cs-ek eta Voxek aurkeztutako errekurtsioak Konstituzio Auzitegiak izapidetzeko onartu izanari buruz.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen polizia-gehiegikeriei buruz Nafarroak eta EAEk onetsitako legeen aurka PPK, Cs-ek eta Voxek aurkeztutako errekurtsioak Konstituzio Auzitegiak izapidetzeko onartu izanari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Konstituzio Auzitegiak izapidetzeko onartu ditu polizia-gehiegikeriei buruz Nafarroak eta EAEk onetsitako legeen aurka PPK eta Cs-ek –biak ala biak Navarra Sumako kideak– aurkeztutako errekurtsioak. Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du horri buruz?

Iruñean, 2019ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Galdera, eremu ez euskalduneko familiek beren seme-alabak D ereduan matrikulatzeko eskubidea bermatzeko irizpideei eta urratsei buruzkoa.

MIREN ARANOVA ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, eremu ez euskalduneko familiek beren seme-alabak D ere-

duan matrikulatzeko eskubidea bermatzeko irizpideei eta urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer irizpide erabiliko dira eta zer urrats egingen dira eremu ez euskalduneko familiek beren seme-alabak D ereduan matrikulatzeko eskubidea –2015eko Euskararen Legearen aldaketan jasotzen dena– bermatzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Nafarroako Gobernuan karguak dituzten laur alderdi politikok bitarteko eta baliabide publikoak erabiliz egindako publizitate-bideoari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuan karguak dituzten laur alderdi politikok bitarteko eta baliabide publikoak erabiliz egindako publizitate-bideoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erretiratuko al duzu Nafarroako Gobernuan karguak dituzten laur alderdi politikok bitarteko eta baliabide publikoak erabiliz egindako publizitate-bideoa?

Iruñean, 2019ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

Galdera, gastu-muga aurkezteko aurreikuspenari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, gastu-muga aurkezteko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko du gastu-muga?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, inbertsio-plan berriari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, inbertsio-plan berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak zer epe eta ezaugarri darabil gogoan inbertsio-plan berri bati dagokionez?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, udal eta kontzeju bakoitzak izan beharreko oinarrizko azpiegituren paketeari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, udal eta kontzeju bakoitzak izan beharreko oinarrizko azpiegituren paketeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak nola definituko du udal eta kontzeju bakoitzak izan behar dituen oinarrizko azpiegituren paketea?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, transferentzia arrunten funtsari buruzko lege berriari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, transferentzia arrunten funtsari buruzko lege berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer epe- eta ezaugarri-aurreikuspen darabilzu transferentzia arrunten funtsari buruzko lege berri-rako?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, foru legeak direla-eta Gobernu zentralak planteatutako eskumen-gatazkei dagokienez Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, foru legeak direla-eta Gobernu zentralak planteatutako eskumen-gatazkei dagokienez Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer egin du edo zer egingen du Gobernu zentralak foru legeak direla-eta aurkeztutako eskumen-gatazken aitzinean?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Blanca Regulez Álvarez

Galdera, autonomia erkidegoetako osasun-zerbitzuak direla-eta Osasungintza Publikoaren Defentsarako Elkarteen Federazioak abuztuan egindako txostenaren balorazioari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, autonomia erkidegoetako osasun-zerbitzuak direla-eta Osasungintza Publikoaren Defentsarako Elkarteen Federazioak abuztuan egindako txostenaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du autonomia erkidegoetako osasun-zerbitzuak direla-eta Osasungintza Publikoaren Defentsarako Elkarteen Federazioak abuztuan egindako txostenari buruz?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, jakiteko ea zer balorazio egiten den ikasturtearen hasieran Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezarri izanari buruz.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zer balorazio egiten den ikasturtearen hasieran Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezarri izanari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du ikasturtearen hasieran Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako gradua ezarri izanari buruz?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, banku publiko bat sortzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, banku publiko bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil finantzaketa- eta aurrezki-tresna publiko bat –zehazki, banku publiko bat– sortzeari dagokionez?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateak bortuz bestaldeko Nafarroarekin eta hango erakundeekin dauzkan harreman ekonomiko, sozial eta kulturaleri eta hartu beharreko neurri zehatzei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateak bortuz bestaldeko Nafarroarekin eta hango erakundeekin dauzkan harreman ekonomiko, sozial eta kulturaleri eta hartu beharreko neurri zehatzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Nafarroako Foru Komunitateak bortuz bestaldeko Nafarroarekin eta hango erakundeekin dauzkan harreman ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruz:

- Nafarroako Gobernuak zer jarrera dauka horri buruz? Zer neurri zehatz hartuko ditu?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea zertan den trafiko arloko eskumenak eskualdatzeko prozesua.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zertan den trafiko arloko eskumenak eskualdatzeko prozesua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut trafiko arloko eskumenak eskualdatzeari buruz:

- Zertan da eskumena eskualdatzeko prozesua eta Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil prozesua burutzeari begira?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, eremu ez euskalduneko ikastetxeetan D ereduan ikasten duten ikasleei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez euskalduneko ikastetxeetan D ereduan ikasten duten ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro

González Felipek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2019/2020 ikasturteko eskolatzeko datuak ezaugarzte aldera Hezkuntzako kontseilariak egindako agerraldian informatu zuen zenbat ikasle dagoen D ereduan eremu ez euskaldunetan eta zenbat talde dagoen herri bakoitzean.

Informazio hori osatzeko asmoz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

1. Herri bakoitzeko talde-kopuruaren zerrenda xehatua, hezkuntza-mailaren arabera, eta talde bakoitza osatzen duen ikasle-kopurua.

2. Ikasle horien garraiorako eta jantokirako laguntzak ordaintzeko gastu-aurreikuspena, ikastetxea, maila, hezkuntza-etapa eta nondik datozen zehaztuta.

Iruñean, 2019ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, lan-kontratudunei gradua ordaintzeari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, lan-kontratudunei gradua ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer asmo darabil lan-kontratudunei gradua ordaintzeko moduari eta epeei dagokienez?

Zer kostu izanen du planteamendu horrek? Dena batera ordaindu ezean, zer kostu izanen du urtez urte?

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Zolinan paratu nahi den planta fotovoltaikoari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Zolinan paratu nahi den planta fotovoltaikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Ba al dago Zolinan paratu nahi den planta fotovoltaikoaren ingurumen-inpaktuari buruzko txostenik? zeintzuk dira ondorioak?

Espedientearen izapideak zer bide egin du?

Iruñean, 2019ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Toki Ogasunen Funtzari atxikitako diruzaintzako gerakinari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Toki Ogasunen Funtzari atxikitako diruzaintzako gerakinari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Nafarroako Gobernuaren 2019ko ekainaren 26ko erabakiaren bidez 2018ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua onetsi zen.

Diruzaintzako gerakinari buruzko atalean esaten da 2018ko abenduaren 31n 63.384.848,44 euroko diruzaintzako gerakina zegoela, "Toki Ogasunen Funtzari" atxikia.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari:

Gobernuak aurreikusita al dauka toki azpiegituren arloko beharrianak arintzera bideratutako inbertsio plan edo programa berezirik finantzatzea diruzaintzako gerakin horrekin?

Gobernuak noiz jasoko du gerakin hori Nafarroako aurrekontu orokorretan?

Legez toki entitateei dagokien diru hori toki entitateek kapital-transferentzien bidez jaso dezaten erabiliko al du gerakin hori?

Gobernuak ba al du planik atxikitako diruzaintzako gerakin hori zerora murrizteko?

Iruñean, 2019ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, ADIPNA eta Erriberako Zuzendariak elkarteekin Hezkuntzako kontseilariak abuztuaren amaieran izandako bilerari buruzkoa.

MIREN ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, ADIPNA eta Erriberako Zuzendariak elkarteekin Hezkuntzako kontseilariak abuztuaren amaieran izandako bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran idatziz erantzun dezan:

Kontseilaria abuztuaren amaiera aldean bildu zen ADIPNArekin eta Erriberako Zuzendarien Elkartearekin. Bilera hartara joateko gonbita ez zioten NIZE-D ereduko ikastetxeetako zuzendarien elkarteari egin. Zergatik?

Zure departamentuak aurreikusita al dauka D ereduko ikastetxeetarako berriazko neurririk? Zein?

Iruñean, 2019ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, landa eremuko eskola sustatzeari buruzkoa.

MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAKEGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, landa eremuko eskola sustatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak idatziz erantzun dezan:

2019-2020 ikasturtearen aurkezpenean –zeina Arroizko IPan egin baitzen–, kontseilariak adierazi zuen landa eremuko eskola sustatzearen aldeko apustua egiten duela.

Bisitaz eta asmo-deklarazioez harago, neurri zehatzik proposatzen al duzu jada ezarri ez denik eta apustu hori bermatzen duenik?

Iruñean, 2019ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, A eredia biziberritze aldera ADIPNA eta Erriberako Zuzendariak elkarteek egindako errekerimenduari buruzkoa.

MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAEGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, A eredia biziberritze aldera ADIPNA eta Erriberako Zuzendariak elkarteek egindako errekerimenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak idatziz erantzun dezan:

Abuztuaren amaiera aldean ADIPNArekin eta Erriberako Zuzendarien Elkartearekin egindako bileran, elkarte horiek bereziki azpimarratu zuten A eredia –irakaskuntza gaztelaniaz ematen du, eta euskara irakasgaia da– biziberritu beharko litzatekeela maila, etapa eta modalitate guztietan.

Zure departamentuak errekerimendu hori beteko al du? Nola?

Iruñean, 2019ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Nafarroako Gobernuak sinatu eta indarraldia bukatu zaien eta “aberaste bidegabearen” egoeran dauden kontratu edo hitzarmenei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak sinatu eta indarraldia bukatu zaien eta “aberaste bidegabearen” egoeran dauden kontratu edo hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbat dira, gaur egun, Nafarroako Gobernuak sinatu eta indarraldia bukatu zaien eta “aberaste bidegabearen” egoeran dauden kontratu edo hitzarmenak?

Zenbat dira 2019an eta 2020an indarraldia bukatuko zaienak?

Zein da egoera horretako kontratu eta hitzarmenen zerrenda zehatza departamentu bakoitzean? Noiztik daude egoera horretan? Zein da zenbateko osoa eta haietako bakoitzarena?

Zeintzuk dira egoera hori sortzeko arrazoiak kasu bakoitzean? Zer aurreikuspen dago berri-zeari edo beste formularen bat bilatzeari begira?

Iruñean, 2019ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Aginduari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Aginduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariari uztailaren 5ean emandako 82/2016 Foru Aginduak baliorik gabe uzten ditu martxoaren 4ko 37/2010, ekainaren 18ko 103/2010, abuztuaren 31ko 146/2010 eta irailaren 22ko 88/2014 foru aginduak. Aipatu foru aginduek ikasliburuen doakotasunerako programatik kanpo uzten zituzten argitalpen batzuk, Foru Komunitatearen hezkun-

tza-curriculuma eta errealitate instituzionala ez errespetatzeagatik.

Foru agindu horrek indarrean dirauenez, parlamentari honek honako hau galdetzen du:

Gobernu honek ba al du Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Agindua deuseztatzeko asmorik?

Izan ere, foru agindu horrek ahalbidetzen du Nafarroako hezkuntza sisteman erabiltzea hainbat etapako curriculuma bete ez eta Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuak.

Iruñean, 2019ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, ikasturtearen hasieran Nafarroako ikastetxeetan behar adina irakasle egonen dela lortzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, ikasturtearen hasieran Nafarroako ikastetxeetan behar adina irakasle egonen dela lortzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Azken ikasturteetan, Hezkuntza Departamentuak giza baliabideak direla-eta egindako kudeaketa ezin txarragoaren eraginez, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxe asko denbora luzean egon dira beren irakasleen plantillak osatu ezinik; hartara, irakasleek kalta nabarmena pairatu dute.

2019/2020 ikasturte hau hastean egoera hori errepikatu da, baina are larriagoa da kontuan hartzen badugu erabaki ulertezin bat hartu dela, alegia, bitartekoen lanpostuak abuztuan esleitu direla eta lanpostuen eskaintza handitu dela, joan den ikasturtean irakasleen ordezkariekin sinatutako ituna aplikatzearen ondorioz. Une honetan, Foru Komunitateko zenbait ikastetxetan 10 irakasle baino gehiago falta dira.

Gauzak horrela:

Zeintzuk dira –egutegia eta ezartze-prozesu zehatza adierazita– Hezkuntza Departamentuak abiaraziko dituen neurriak, ikasturtearen hasieran Nafarroako ikastetxeek behar dituzten irakasleak izan ditzaten lortzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Nafarroako Gobernua osatu duten alderdi politikoek mezuak defendatzeko Nafarroako Gobernuaren Twitter-eko kontu ofizialean erantsi den bideoari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernua osatu duten alderdi politikoek mezuak defendatzeko Nafarroako Gobernuaren Twitter-eko kontu ofizialean erantsi den bideoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Atzo, Nafarroako Gobernuaren Twitter-eko kontu ofizialean, mezu bat bidali zen (ondotik

datarren helbidean ikus daiteke: https://twitter.com/gob_na/status/1171374077002600448) eta barruan zeraman bideo batean Nafarroako Gobernua osatu duten alderdi politikoek mezuak defendatzen ziren.

Aipatu bideoan alderdi horien logotipoen propaganda ere egiten zen.

Gobernuari galdetzen diogu:

Nork prestatu zuen Twitter-eko mezuari gehitu zitzaion bideoa? Nafarroako Gobernuak berak sortua zen edo kanpo enpresaren batek egin?

Zein da bideo horrek izan duen kostua?

Egokitzat jotzen al du Gobernuak Twitter-eko kontu ofizial batean argitaratzea bideo bat, Gobernua osatzen duten alderdien mezuekin bat egiten duen edukiarekin?

Gobernuak ba al du asmorik administrazioaren baliabide materialak eta giza baliabideak erabiltzen jarraitzeko eduki politiko eta partidistako mezuak igortzeko, oraingo koalizio gobernua eta haren administrazio egiturak justifikatze aldera?

Iruñean, 2019ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, bost hilabete eta erditik gorako kontratuak dauzkaten bitarteko langileei udako hilabeteak ordaintzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, bost hilabete eta erditik gorako kontratuak dauzkaten bitarteko langileei udako hilabeteak ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Bete al du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak bere konpromisoa, alegia, bost hilabete eta erdi baino gehiagoko kontratua duten bitarteko langileei udako hilabeteak ordaintzea, hezkuntza itunean ezartzen zen bezala? Bere konpromisoa bete ez badu, Gobernuak zer dela-eta urratu du sinatutako ituna?

2. Gobernuak aipatu konpromisoa betetzeko asmorik baldin badu, lehenagoko galderen erantzunean honako informazio hau eranstea nahi dugu:

a. Zenbat pertsonari ordaindu behar zaizkion udako hilabeteak, hezkuntza mailaren arabera sailkatuta.

b. Kontzeptu horrengatik sortuko den gutzirako zenbatekoa, maila bakoitzean.

c. Ordaintzeko aurreikusten den epea.

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Nafarroako ekonomia bereziki ukitzen duten adierazle ekonomiko baliagarri buruzko informazio-gailu berriak ezartzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ekonomia bereziki ukitzen duten adierazle ekonomiko baliagarri buruzko informazio-gailu berriak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Industria-produkzioaren datuak, merkataritza-balantza, Brexitaren ondoriozko krisialdia, Alemaniako ekonomiaren desazelerazio guztiz garrantzitsua... Horiek guztiak kontuan hartuta, komenigarria da berehalako adierazleak edukitzea, mekanismo eraginkorrak diseinatu ahal izateko gure ekonomia-sarea bereziki ukitzen duten alderdietan. Hori dela-eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehena. Gaur egungo egoera nahasia ikusita, Nafarroako Gobernuak diseinatu al du Nafarroako ekonomia bereziki ukitzen duten adierazle ekonomiko baliagarri buruzko informazio-gailu berrien ezarpena?

Bigarrena. Zer neurri berezi hartu ditu edo hartu gogo ditu Gobernuak alderdi ekonomikoari dagokionez?

Hirugarrena. Zer aurreikuspen ekonomiko aldatu dira azken asteotan azaleratu diren ebidentzien ondorioz?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, N121A errepideko Sunbillako bidegurutzeari buruzkoa.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, N121A errepideko Sunbillako bidegurutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

N-121A errepideko Sunbillako bidegurutzea egokitzeari eta hura hartzeko eta Sunbillara sartzeko maila desberdineko konponbide bat eraikitze aldera Gobernuak duen konpromisoari buruz, parlamentari naizen aldetik honako hau jakin nahi dut:

- Zer epe aurreikusten dira hori egiteko eta erabilgarri uzteko?

Iruñean, 2019ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar duen kidea hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, hona erabakia:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar duen kontseilukidea

hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea 2019ko urriaren 3ko 17:00ak arte luzatzea (10-19/ELC-00005).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

